

# zumaiia

5. zenbakia • 2009ko Urria

# ZU

udalaldizkaria



Zumaiako Udala



Zumaiako  
Ludotekak



## Zerbitzuak indartzen

*Udalak zuzeneko langileak kontratatu ditu Ludotekako zerbitzurako; orain, indartutako zerbitzua eskainiko da, zenbait berrikuntzarekin batera.*

# aurkibidea

2 Olio bilketa

3 Inkesta

4 Fototeka

5 Denon herri kontuak

6 Motxian

8 Aukera berriak Ludotekan

12 Ongizatean inbertituz

14 Zumaia UEMAkide

15 Aldaketak Mugin

16 Eraikitzen

17 Alderdien iritzia

20 Agenda

Zumaiatik kanpo bizi arren, zure etxean jaso dezakezu *Zumaiazu* aldizkari hau posta bidez. Egin eskaria 943 86 50 25 telefonoan.

Argitaratzailea: Zumaia Udala  
Egilea: Prentsa bulegoa  
Argazkiak: Zumaia Udala eta EREGI, Euskara eta Komunikazioa

Diseinua: EREGI, Euskara eta Komunikazioa  
Ale kopurua: 4.500 ale  
L.G: SS-139-2009

Paper birziklatuan egina 

## udal zerbitzua; Olio bilketa



Hileko lehen ostiraletan eta larunbatetan egiten dute Zumaian olio begetalen eta hondakin arriskutsuen bilketa.

Egun horietan, olio jasotzen duen furgoneta bi kokalekutan jarri ohi da: Alai auzategian eta Amaia plazan. Alai Auzategian 9:00etatik 11:00etara egoten da, eta hango bilketa bukatu ostean joan ohi da Amaia Plazara, 11:05etik 13:00ak arte egoten da hor. Erabilitako olio edukiontzi batean eta tapa itxita duela entregatu behar da.

2004ean jarri zuen martxan Urola Kostako Mankomunitateak olio begetalak eta hondakin arriskutsuak biltzeko zerbitzua. Zumaia Udala Urola Kostako Mankomunitatearen partaide da, Aiako, Getariako, Orioko eta Zarauzko Udalekin batera.

**Hileko lehen ostiralak eta laugarren larunbatak.**

**Ordutegia:**

**9:00etatik 11:00etara  
Alai Auzategian**

**11:05etik 13:00etara  
Amaia plaza**

# Parte hartzen al duzu kultur ekitaldi edo aisialdi eskaintzako ekimenetan?



Dorleta Betondo



Jesus Egaña



Rosa Astigarraga



Juan Jose Zubia

Kultur ekitaldietara joateko ohitura badaukat. Neu herriko abesbatzako partaidea naiz eta musika emanaldiak asko gustatzen zaizkit. Zinemara eta antzerkira ere joaten naiz ahal dudanean. Zumaian aisialdi eskaintza zabala dagoela uste dut, oro har. Eskaintzen diren hitzaldiak ere arlo askotakoak izaten dira. Elkarte dezente daude eta horien lanari esker ere bada.

*En Zumaija creo que hay una amplia oferta cultural y de ocio.*

Edadeak aurrera egin ahala, gero eta gutxiago joaten naiz ekitaldietara. Garai batean bai ibiltzen ginen batera eta bestera. Orain, oinez ibiltzera joaten naiz eta gero, soziedadean elkartzen gara, hamaiketakoak egiteko. Kultur ekitaldiak baino, erremonteko partidak ditut nik nahiago. Askotan joaten naiz Galarrretara partidak ikustera, erremonteko partiden jarraitzailea naiz.

*Prefiero los partidos de remonte que las actividades culturales.*

Denbora libre asko ez daukat eta, beraz, ez naiz joaten normalean. Hala ere, antzerkia asko gustatzen zait eta Zumaian emanaldi dezente antolatzen dituztenez, joan izan naiz inoiz ikustera. Uda partean, berriaz, kontzertuak eta ikustera gehiago animatzen gara. Gainontzean, zerbait parean tokatzen bazait geratzen naiz, baina propio ekitaldi batera joateko ohitura gutxi daukat.

*Me gusta mucho el teatro y de vez en cuando suelo ir a ver alguna obra.*

Ohitura gutxi daukat egia esan. Nahiago dut oinez ibiltzera joan, eta osasunarentzako gainera hobe. Garai batean asko joaten ginen zinemara, orain, ordea, ohitura hori galdu dugu. Gainontzean, festetan eta kalean ibiltzea gustatzen zait, zumaiar gehienoi bezala. Lehen abesbatzako partaide izan nintzen eta abenduan kalean egiten duten emanaldia ikustera ere joateko ohitura badaukat.

*Disfruto mucho en la calle en fiestas, como la mayoría de los zumaiarros.*

## udala zuzenean



**b**igarren urtez jarraian, aurrekontuak herritarrekin erabakitzekeo bideak irekiko ditugu Udaletik. Aurtengoan ere, herritarrek udal erabakietan parte hartu dezaten nahi du Udalak. Garai gogorrek bizi ditugu, garai zailak, eta inoiz baino garrantzitsuagoa izango da zuhurtziaz jokatzeko. Joan den urteko esperientziak ikasgai gisa balioko digu eta, zentzu horretan, aurrera begirako eronketarako argia erakutsiko digu. Udalak herritarren eskutik lan egiten jarraitu nahi du, eta herritarrek horretaz baliatzera gonbidatu nahi ditugu beste behin ere.

**p**or segundo año consecutivo, el Ayuntamiento ha abierto el camino para posibilitar la participación ciudadana en el plan presupuestario del 2010. De nuevo, el consistorio pretende que los/as zumaiarras estén presentes en las decisiones del Ayuntamiento. Vivimos tiempos desapacibles, tiempos difíciles, y más que nunca, actuar con sensatez será esencial. Tomando como lección y como guía la experiencia del año pasado, el Ayuntamiento quiere seguir trabajando junto con los/as zumaiarras y anima a todos y a todas a participar en este proyecto.

## Fototeka



**n**olakoa zen garai bateko Zumaia? Udala, galdera horri erantzun eta herritarrei ezagutarazteko asmoarekin ari da eratzten Zumaia argazki zaharren artxiboa. Helburua zumaiarrek herriko ondarea bilatzeko eta zabaltzeko lanean parte hartzea da. Zuk ere 1975. urtea baino lehen ateratako argazkiren bat aurkitzen baduzu, aurkeztu ezazu kultur bulegoetan eta baliteke hurrengo udal aldizkarian argitaratuta ikustea.

Argazki artxibo osoa [www.euskomedia.org](http://www.euskomedia.org) helbidean dago ikusgai.



1900 hasierako argazkia da. Zumaia kaia ageri da lehen planoan eta San Pedro parrokia atzealdean. Miguel Angel Saez-ek emandako argazkia da, Palentziako (Gaztela eta Leon) artxibo historikotik berreskuratua.

*Fotografía recuperada del archivo histórico de Palencia (Castilla y León).*



1900. urtean zabaldu zen Zumaia Donostiarekin lotzen zuen trenbidea.

Urte horretarako geltokia eraikita zegoen. Tren enplegatuekin batera, ekipaiak eramaten zituen langilea ikusten da erretratuan.

*La estación del ferrocarril que unía Zumaia con San Sebastián.*

# Erabakietan parte hartuz



Iazko prozesuko irudi bat.

**a**urten ere, Zumaia Udalak datorren urteko aurrekontuak modu parte hartzailean lantzeko prozesua martxan jarriko du. Aurreko urtean ekin zion Udalak ekimen honi estreinakoz eta auzo guztietako bizilagunek parte hartu zuten, baita arlo eta talde desberdinetakoak ere eta, nola ez, udal-teknikari eta -politikariak.

Herritar eta udal-langileria nahiz politikarien arteko elkarrizketa, eztabaida eta hausnarketaren bidez landutako prozesu haren emaitza, parte hartu zuten guztiek adostutako beharren zerrenda izan zen. Jasotako datuen arabera, 80 pertsona inguruk parte hartu zuten iazko saioan eta denera, 140 proposamen inguru jaso ziren. Ildo beretik, egiteko moduak aldatu eta Zumaian parte-hartzearen aldeko urratsak eta oinarriak ezarri ziren.

Aurtengo dinamikan, datorren urterako proposamenak jasotzeaz gain, epe luzeagorako nahiz ikuspegi estrategikoz egindako ekarpenak jasotzea izango du helburu Udalak.

Parte hartzeko prozesua irailean

hasi eta abenduan bukatuko da. Auzokako bilerak egingo dira lehendabizi urrian eta, ondoren, arlokako bilerak azaroan. Bilereaz gain, ekarpenak egiteko beste bide batzuk ere martxan jarriko ditu Udalak. Internet bidez, [www.zumaia.net](http://www.zumaia.net) helbidean ekarpenak egiteko

txoko bat jarriko da. Horrez gain, eta bileretara etortzerik ez duten herritarren ekarpenak jasotzeko, Udalaren ohiko postontziak erabiliko dira. Udaletxean, kiroldegian, eta Kultur Etxean egongo dira postontziak eta proposamenak parte-hartze prozesuak irauten duen bitartean igorri beharko dira.

## Auzokako bileren egutegia

Data	Ordua	Saioa	Tokia
Urriak 6	19:00	Parolalde, Larretxo, San Telmo eta Ardantzabide	Udaletxea
Urriak 8	19:00	Odieta, San Jose, Alde Zaharra eta Erribera kalea	Udaletxea
Urriak 13	19:00	Basadi, Aita Mari, Alai eta Puntanoeta	Branka
Urriak 15	19:00	Narrondo, Artadi, Oikia, Estazioa eta Jadarre	Branka

**e**ste año el Ayuntamiento de Zumaia vuelve a poner en marcha un proceso para elaborar los presupuestos para el 2010 de una manera participativa. Mediante la experiencia del año pasado, cuyas herramientas fueron el diálogo, reflexión y debate en grupo, se ha marcado

un primer hito en el camino hacia la participación y la construcción colectiva en Zumaia. Este año también se celebrarán reuniones por barrios y por sectores, y el Ayuntamiento quiere animar a la ciudadanía a participar en la iniciativa, puesto que es la ciudadanía quien da sentido a este proceso.

## Ardantzabiden aparkaleku berria



Zumaiako Alde Zaharraren inguruan ibilgailuak aparkatzeko zailtasunak arinagoak izango dira aurrerantzean. Udalak behin-behineko aterabidea jarri dio eremu horretako bizilagunek zein kanpotarrek aparkatzeko bizi zuten arazoari. Ardantzabide auzoko etheen eraikuntzak izango duen etenaldia aprobetxatuz, eraikuntza lanen amaierako lur eremu bat aparkaleku bezala erabiltzeko prestatu du Udalak. Aparkalekua behin-behinekoa izango da, eta oraingoz, ez dauka itxiera datarik.

Gutxi gorabehera, 100 ibilgailu sartzeko lekua dago egokitutako eremuan eta abuztuko bigarren hilabetean jarri zuten erabilgarri. Bertara joateko, Amaia plazatik Ardantzabide auzorako errepidea jarraitu eta etxe berriak amaitzen diren lekura joan behar da.

*Aprovechando la pausa de las edificaciones de Ardantzabide, el Ayuntamiento ha preparado una superficie del terreno para utilizarlo como aparcamiento. En él entran cerca de 100 vehículos y se encuentra al final de la zona renovada. Para acceder al aparcamiento se debe tomar la carretera que va desde la plaza Amaia hacia el barrio Ardantzabide y continuar por la vía hasta el lugar donde acaban los edificios ya construidos.*

## Kirolaren aurpegi eskuzabala



Iragarrita bezala, Zumaia Flysch Trail mendi lasterketako antolatzaileek probarekin lortutako dirua Aspanovas Gipuzkoa elkarteari eman diote. Irailaren 15ean egin zuten ekitaldian, 6.000 euroko diru-saria jaso zuen elkarteak. Minbizia duten haur gipuzkoarren gurasoen elkarte da Aspanovas Gipuzkoa eta mendi lasterketako antolatzaileek jakinarazi zutenez, “datorren urteko proban ateratzen den dirua ere eurentzat izango da”.

Uztailaren 26an egin zen mendi lasterketa honen lehendabiziko edizioa eta probak egundoko arrakasta izan zuen. Zumaiako itsaslabarraren inguruak zeharkatuz, 27 kilometro osatu zuten ibilbidea. Zumaiako Udala ekitaldi horren babeslea izan zen.

*Tal y como lo anunciaron, la organización de la exitosa carrera de montaña Zumaia I. Flysch Trail, obsequió a la Asociación Aspanovas Gipuzkoa con un cheque de 6.000 euros, recibidos de las inscripciones de la prueba.*

*Esta primera edición de la Zumaia Flysch Trail se celebró el 26 de julio y generó gran expectación entre los y las zumaiarras. El Ayuntamiento de Zumaia ha sido el patrocinador de la prueba.*

## Ibilbide oparoaren esker-ona



Abuztuko festa giroan, 25 urte bete zituen Zumaiaiko Musika Jaialdiak eta horren aitzakian, era askotako doinuak entzun ahal izan genituen herriko kale eta antzokietan. Udaleko Kultura Batzordetik azaldu dutenez, “oso emankorra” izan da jaialdiaren urrezko eztei hau eta eskerrak eman dizkiete berau antolatzen ibili diren zein ekitaldietan parte hartu duten herritar eta bisitariari.

Kultura zinegotzi Pili Etxabek ekitaldi guztiak izendatu ditu arrakastatsu: “bateren bat nabarmentzearen, Donostiako orfeoiaren ekitaldia aipatuko nuke. Parrokia ez nuen ezagutzen hainbeste jenderekin”. Horren parean jarri du, hala ere, Etxabek herriko bandaren eta San Pedro abesbatzaren emanaldia. Bere esanetan, “oso pozgarria da, herriko bi elkartek elkarlanean aritzeko gogoia erakutsi eta eman zuten maila ikustea”.

*El Departamento de Cultura del Ayuntamiento, califica de “muy exitosa” la 25 Edición del Festival de Música que se celebró durante el mes de agosto en Zumaia. Según la concejala de Cultura Pili Etxabe, todas las actuaciones han tenido gran expectación, tanto entre zumaiarras como entre los visitantes.*

## Bisitari kopuru bikoitza



Zumaiaiko turismo bulegoak bikoiztu egin du aurreko urtearekin alderatuta udako bisitari kopurua. Jasotako datuen arabera, 14.707 pertsonak bisitatu dute turismo bulegoa udako denboraldian, ekainaren 15etik irailaren 15era. Iaz, berriz, epe berdinean 7.386 bisitari izan ziren. Aurten, kopuru horretatik 1.728 bisitari, abuztuan Amaiaiko Plazan egokitzen den informazio gunean zenbatu dira.

Bisita gidatuen kopuruak ere nabarmen egin du gora aurten. Aurreko urtean 3.026 pertsonak parte hartu zuten bezala, aurten dagoeneko kopuru hori gainditu da, 3.240 pertsonak jaso dute zerbitzu hau urte hasieratik iraila bitartean. Parrokian, berriz, 5.800 bisitari izan dira urtariletik hona, eta Zuloagan Museotik 2.500 pertsona pasa dira apiriletik irailera bitartean.

*La oficina de turismo de Zumaia ha duplicado su número de visitantes este verano. Del 15 de junio al 15 de septiembre, 14.707 visitantes han pasado por la oficina. En cuanto a las visitas guiadas, con una cifra de 3.240 participantes, ya se ha superado la cuantía del año pasado que ascendía a 3.026. La Parroquia, por su parte, ha contado con la visita de 5.800 turistas en lo que va de año.*

## Aukera berriak Ludotekan

Zumaiako Ludoteka indartzeko apustua egin du Udalak. Zuzeneko langileak kontratatu dira eta berrikuntzak izango dira programazioan.

*El Ayuntamiento apuesta por fortalecer el servicio de la Ludoteka. Se han contratado tres educadoras y habrá mejoras en la asistencia.*



Haurrak Ludotekan jolasean.

**i** kasturte berriarekin batera, eskaintza berria izango da Zumaiako Ludotekan. Zegozkion prozedura guztiak jarraitu ondoren, Udalak zuzeneko langileak kontratatu berri ditu herritarrei Ludotekako zerbitzua eskaintzen jarraitzeko. Hiru langile kontratatu dira: haur teknikari laguntzaile bat eta bi hezitzaile. Hala, Araika Arrona, Nerea Aramendi eta Maier Araiz, “ilusioz” daude ikasturte berriari ekiteko. Beraiek izango dira Ludotekako hezitzaileak.

Zerbitzua hobetu eta zabaltzeko helburuarekin egin du Zumaiako Udalak zuzeneko langileen kontratazioa. Nerea Epelde, Udaleko Hezkuntza eta Euskara zinegotziak azaldu duenez, “indartutako” zerbitzu bat eskainiko da, eta ildo beretik, “zuzenagoa” izango da Udala-

ren esku-hartzea Ludotekako programan.

1991. urtean sortu zen Zumaian Ludoteka. Zenbait gurasoren eskari eta ekimenetik abiatu zen eta Udaleko Kultura teknikariak eta Gizarte Langileak eman zioten behar zuen bultzadaxoa. Jada, adin nagusitasunera iritsi da Zumaiako Ludoteka eta urte askotako lan horri esker, esan daiteke herrian errotuta dagoen zerbitzua dela. Araika Arrona Ludotekako haur teknikariak azaldu duenez, azken urteetan 100-120 haur inguru ibili dira urtez urte Ludotekan.

Haurren garapenean jolasak duen garrantzia aldarrikatu eta azpimarratzea dira Ludotekaren zeregin nagusiak. Haurrei, jolasaren bidez, dibertsio eta gozamenerako aukerak eskaintzea du

betebehar, horrekin, bizitzarako jarraitu eta trebetasunak lortu eta gara ditzaten. Ludotekako Haur Teknikariaren arabera, “jolasa haurarentzako oinarriko beharra da, eta giza garapenerako motorea”. Ludotekak jolastearen aukera bermatu behar du teknikariaren arabera: “Izan ere, jolasa ekintza ludikoa da eta heziketarako tresna aproposa”.

Helburu horietara modu integralean iristeko ahaleginean, zerbitzu osatuago bat eskainiko dute aurrerantzean, eta horretarako, zenbait aldaketa egin dituzte programan. Batetik, zerbitzua zabaltzeko egin dute. Lehen, asteartetik ostiralera eskaintzen zen Ludoteka zerbitzua; orain, berriz, astelehenean ere irekiko dute. Horrez gain, ez dute baztertzen zenbait asteburutan ere jarduerak programatzea.



Ezkerretik eskuinera, Araika Arrona, Nerea Aramendi eta Maier Arraiz.

### Programa integrala

Zerbitzua luzatzearekin batera, “sendotu eta aberastu” egin nahi dituzte eragile desberdinekin izan beharreko harremanak. “Hartzaile zuzenak umeak izango dira eta horiekin harremana egunero landuko dugu. Baina zuzeneko hartzaileez gain, zeharkakoekin ere lan egingo da orain. Gurasoentzako aholkularitza zerbitzua eskainiko da Ludotekan bertan, eta beraientzat espresuki osatutako informazioa emango zaie eta prestakuntzara bideratua izango da”, azaldu du Araika Arronak.

Nerea Epelde, Hezkuntza zinegotziak ere berretsi egin du harremanak “sendotzearen beharra” eta proiektu ireki bat izango dela gaineratu du: “parte-hartzea bultzatuko da bai haurren eta baita gurasoen artean ere. Gurasoak ere proiektuan integratu eta nolabait inplikatzera bultzatu nahi ditugu”.

### Eragileekin koordinazioa

Herriko ikastetxe eta eragileekin koordinazioan ariko da Ludoteka aurrerantzean. Haur Teknikariaren arabera, “herriko eragileekin koordinatuta lan egingo dugu. Hala nola, ikastetxeekin, kultur arloko eragile desberdinekin, ingurumen arloarekin, Gizarte Zerbitzuekin...”. Horrekin batera, herrian egiten

diren ekintzetan ere parte hartuko du Ludotekak. “Orain artean ere egiten zen hori, baina Ludotekaren presentzia indartu egin nahi dugu herriko festa edo ekimen desberdinetan. Ludoteka gazte-txoen artean erreferentea izateaz gain, herrian ere hala izatea bultzatu nahi dugu”.



**L**a Ludoteka de Zumaia comenzará el nuevo curso con ciertos cambios en su estructura y también en su programación. El Ayuntamiento ha contratado de forma interina a tres trabajadoras para seguir ofreciendo a los ciudadanos el servicio de Ludoteka. En adelante, Araika Arrona será la técnica auxiliar infantil y Nerea Aramendi y Maier Araiz ocuparán las plazas de educadoras. Según la concejala de Educación Nerea Epelde, mediante esta nueva contratación, “se reforzará” el servicio de Ludoteka y del mismo modo, la gestión del Ayuntamiento se llevará de una manera “más participativa”.

La Ludoteka de Zumaia ya ha llegado a la mayoría de edad. Se fundó en el año 1991 y gracias a la labor ejercida en todos estos años, se puede decir que es una elección arraigada en la localidad. La técnica infantil Araika Arrona ha señalado que en estos últimos años, cerca de 100-12 niños y niñas de Zumaia han frecuentado la Ludoteka cada año.



Ludotekak antolatzen ditu haurrentzako udako udaleku irekiak.

## Profil desberdinetako gaztetxoak

6tik 12 urte bitarteko gaztetxoek eskaintzen die zerbitzua Zumaiako Ludotekak. Arrona teknikariak dioenez, ordea, bi adin taldeetan banatzen dira haurrak nagusiki: 6tik 8ra eta 9tik 12ra. “Ezberdinak dira adin talde bakoitzak dituen aisialdirako beharrak. Gaztetxoenen artean, Ludoteka ihesbide bat da nolabait esateko. Jolasak oso dinamikoak dira eta garrantzia berezia dute”, adierazi du Arronak.

9-12 urte bitarteko hurrek, aldiz, Ludotekarekin beste behar batzuk ase nahi dituztela dio. “Interesguneak desberdinak dira, eta jolasteko modua ez da hain dinamikoa. Orain arteko Ludotekaren eskaintza ez zen behar bezala egokitzen adin talde honetara eta erabiltzaileen profileen nabari da hori”. Programa berriarekin, talde horren beharretara hobeto egokitzen saiatuko dira eta beraientzako eremu bat egokitzea ere aztertzen ari dira.

## Aurrera begirako erakusleak

Zumaiako Udalak Ludotekako langileak udal langile izateko erabakia hartu eta berehala, Gipuzkoako Foru Aldundiaren Haur eta Gazteen Sustapen Ataleko aholkularitza zerbitzua eskaintzen duen

Bulego Teknikoarekin jarri zen harremanetan. Lehen hartu-eman hartan abiatu zen bi eragileen arteko elkarlana, eta Aldundiaren Bulego Teknikoak Aholkulari lanak egin ditu herriko gaztetxoeneri eskaintitako zerbitzuen politikak zehazterako garaian. Ludotekari eman nahi zaion bultzada oinarri hartuta, elkarlanean, egungo sustapen sistema aztertu, indartu eta garatzeko aukera aproposa izan zitekeela ikusi zen. Hortik abiatuta, egin berri da herriko haur, nerabe eta gazteen sustapenerako sistemaren diagnostia.

Azterketa horretan jaso dira herriko gaztetxoek behar, desio eta joerak. Baita herriko sustapen sistemak dituen ahulgune eta indarguneak ere, eta horrek guztiak Ludotekaren eskaintza indartzeko balio izan die eta aurrerantzean ere balioko die udal teknikariei.

Momentuz, beste erronka bat ere jarri diete hiru hezitzaileek euren buruari: gazteen joera berrietara egokitzea. “Gazteen joerak aldatzen ari dira eta Ludotekak behar horietara egokitu behar du. Orain artean, ondo funtzionatu izan duen zerbitzua izan da eta beharbada egoera horrek eraman du berrikuntza gehiegi ez egitera. Hala ere, gizartea aldatzen ari

den bezala, Ludotekak ere aldatu behar du”, azaldu du Arrona teknikariak.



**a**hora, se pretende reforzar el servicio, insertando en la estructura y programación ciertas mejoras. Por un lado, se ampliará el servicio, abriendo también los lunes y no descartan programar diversos eventos los fines de semana. Por otro lado, se pretende reforzar y enriquecer las relaciones con diversos actores del entorno de la Ludoteka. “Los niños serán los receptores directos, pero queremos reforzar la relación con padres y madres. En ese sentido, ofreceremos un servicio de asesoramiento dirigido expresamente a ellos”.



6 eta 12 urte bitarteko gaztetxoei eskaintzen die zerbitzua Ludotekak.

### Ikasturte berrirako izen-ematea

Urriaren bertan irekiko dute izen-ematea Zumaiako Ludotekak. Urte guztiko zerbitzuaren truke, 23 euroko kuota bat ordaindu beharko dute gurasoek. Urri bukaeran, bilera egingo da izena emandako haurren gurasoekin, eta hor, programa berriaren nondik norakoak azalduko dizkiete. Urriaren 1etik 9ra, berriz, atea irekita izango dira Ludoteka ezagutzera joan nahi dutenentzako. 17:00etatik 19:30erako ordu egongo da horretarako aukera.

**L**a técnica infantil asegura que la tarea principal de la Ludoteca es ofrecer a los niños/as maneras de diversión mediante el juego, y para que de ese modo, puedan obtener y desarrollar la confianza que les será imprescindible para su crecimiento. Después de que el Ayuntamiento tomará la decisión de contratar a tres trabajadoras para la Ludoteca, el consistorio se puso en contacto con la Oficina Técnica de Asesoramiento en Políticas

de Juventud de la Diputación Foral de Gipuzkoa. Ahí comenzó la coordinación entre las dos administraciones y juntos han realizado un diagnóstico sobre las políticas dirigidas a niños, adolescentes y jóvenes de Zumai. El diagnóstico ha valido para identificar las debilidades al igual que los puntos fuertes del servicio.

La matriculación se realizará en octubre y del 1 al 9 del mismo mes habrá jornada de puertas abiertas.



**Zumaiako Ludoteka**  
943 14 32 64

### Zumaiako Ludoteka

**Kokapena:** Itsas Kiroldegia, Gernika ibilbidea

**Adina:** 6-12 urte bitartean

**Irekita:** Astelehenetik ostiralera

**Egutegia:** Urritik ekainera

**Ordutegia:** 17:00etatik 19:30era.

**Izen-ematea:** Urriaren

**Urteko kuota:** 23 euro

**Ateak irekita:** Urriaren 1etik 9ra (17:00etatik 19:30era).

**Ubicación:** Pabellón Náutico, Paseo Gernika

**Edad:** Entre 6 y 12 años.

**Abierto:** De lunes a viernes

**Calendario:** De octubre a junio

**Horario:** De 17:00 a 19:30

**Inscripción:** En octubre

**Cuota anual:** 23 euros

**Puertas abiertas:** Del 1 al 9 de octubre (de 17:00 a 19:30).

## Herritarren ongizatean inbertituz

**Z**umaiaiko Udalak gizarte zerbitzuen saila indartzeko apustua egin du. Bi gizarte langile eta administrari laguntzaile bat kontratu dira eta lan-taldea handitu egin da. Iñaki Agirrezabalaga Zumaiaiko alkatea da Gizarte Zerbitzuetako batzordeburua eta bere esanetan, “udal gobernura iritsi eta berehala jabetu ginen gizarte zerbi-

tzuetan zenbait gabezia bazeudela. Horren aurrean, baliabideak areagotzeko konpromisoari heldu genion eta 2008ko urrian abiatu genuen bi gizarte langile kontratatuzko prozedura”.

Aurrerantzean, Nerea Azkue eta Edurne Arruti izango dira gizarte langile berriak eta Pili Alberdirekin ariko dira

elkarlanean. Alberdik azaldu duenez, gizartean eman diren aldaketek sortutako behar berrietara egokitzea izango da taldearen erronketako bat. Ildo beretik, hobera egingo du herritarrei zuzendutako arreta: “behar duten denbora eskaini nahi diegu herritarrei, eta behar duten jarraipena eman kasuei”.



### Pili Alberdi

Gizarte Langilea  
eta departamentuko arduraduna

### Udalak gizarte zerbitzuen saila indartzeko apustua egin berri du. Zer aldaketa suposatuko ditu horrek?

Gizarte langile bat eta erdi izatetik, hiru langile izatera pasa gara eta horrek, lehenengo eta behin, herritarrenganako arreta zerbitzua hobetuko du. Lehen, asteen bi egun zeuden jendea artatzeko izendatuta. Geneukan itxaron zerrenda ikusita, asteen hiru egun (astelehen, astearte eta ostegunak) izendatu ditugu jendearen arretarako eta bi gizarte langile horretara egongo dira. Horrekin batera, gizarte langileak eremuka banatu gara. Bakoitzak bere eremua tratatuko du herrian eta horrela, herritarrek gizarte langilea identifikatu eta hobeto ezaigutu ahal izango dute.

### Zein da gizarte zerbitzuak gehien erabiltzen dituen herritarren profila?

Udaleko Gizarte Zerbitzuak herritar guztertzien zuzenduta daude eta esan daitezke

Gizarte Zerbitzuen erabilera erabat normalizatuta dagoela gaur egun. Gero eta kasu desberdin gehiago lantzen ditugu eta herritarrek gero eta arreta hobea jasotzea espero dute, oro har. Hala ere, gure zerbitzuak gehien erabiltzen dituztenak dira, adin nagusikoak, mende-kotasunen bat dutenak, emakumeak, etorkinak, pobrezia egoera daudenak, edo buruko gaixotasunak dituztenak. Familiak ere etortzen dira gugana, haur, nerabe eta gazteei lotutako gaiekin batere ere. Horren aurrean, beharrezkoa zaigu aniztasuna lantzea.

### Haur eta gazteek ere joaten al dira?

Babesgabeke edo arrisku egoeran dauden haur, nerabe eta gazteen notifikazioak areagotu egin dira. Gizartea aldatzen ari den neurrian, familiak ere aldaketak izan ditu; bai hezkuntzako irizpideei dagokionean, eta baita gurasoen rolei dagokionean ere. Udal Gizarte Zerbitzuetan Familia Esku-hartze Programa dugu baina programa hau indartu eta sendotu egin beharra dago herriko beste gizarte eragileekin lan bateratu bat

bultzatuz: herriko ikastetxeak, osasun arloa, denbora libreko baliabideak...

### Bizi dugun krisi garai honetan, gora egin al du Gizarte Zerbitzuen eskariak?

Azken urteetan gorakada nabarmena bizi izan dugu Udal Gizarte Zerbitzuetan. Programa eta prestazio berriak sortu dira eta horren ondorioz, gero eta herritar gehiago hurbildu da. Horien adibide da 2006an Espainiar Estatuan onartutako Mendekotasun Legea. Bestalde, azken hilabeteetan jende berria etortzen ari da; langabezian geratu diren familiak, edota orain arte lan munduan txertatuta egon eta aurrera begira, kaleratzeko arriskuan ikusten direnak, adibidez.

### Behar berrietara egokitzea izango da Gizarte Zerbitzuen beraien beharra, akaso...

Lehen aipatu bezala Gizarteak aldaketa ugari bizi izan ditu azken urteetan eta Udaleko Gizarte Zerbitzuak aldaketa



Gizarte Zerbitzuetako lantalde berria.

horretara egokitzen saiatu dira. Beste herrietan bezala, dagozkion zerbitzuak bideratzen saiatu gara. Aldaketak ez dira eman, ordea, langile kopuruan. 10 urte hauetan pertsonal berdinarekin egon gara departamentuan eta oso egoera larrian egon gara eguneroko lana aurrera ateratzeko. Gizarteak bizi dituen aldaketa horietara egokitu beharra daukagula ez dugu zalantzarik, baina horretarako giza baliabideak indartzea ere garrantzitsua dela uste dugu.

### **Familia egiturak, adibidez, aldaketa nabarmenak eman dira, ezta?**

Familia egiturak aldatu egin dira, eta horrekin, behar berriak sortu dira. Lehen, kide gehiagok osatzen zituzten familiak eta arazoak nolabait beraien artean konpon-tzeko joera zegoen. Orain, familia eredia aldatu egin da eta lehen baino kide gutxiagokoak dira, edota bakarkako jendea ere lehen baino gehiago dago. Emakumea lan-munduratzeko ere aldaketak ekarri ditu familien funtzionamenduan. Gizonezkoek zaintza lanak ez dituzte bere gain hartu eta horren aurrean, irtenbideak beste bide batzuetatik bilatu beharrean aurkitu dira familia asko.

### **Eta zer gertatzen da etorkinen kasuan?**

Etorkinen kopurua goraka doa eta herriarren artean errezeloa sortu da nolabait esateko. Gizarte Zerbitzuetatik diru-laguntza guztiak beraiei bideratzen zaizkionaren errezeloa sortu da eta hori ez da zuzena. Kultura eta ekonomia mailan aberastasuna eragiten dute etorkinek eta horretaz aparte, gizarteratzeko tresna gisa erabiltzen dituzte gure zerbitzuak, beraien azken xedea lana bilatzea da. Datu esanguratsu bat da, 2008. urtean gizarte larrialdietarako dirulaguntzak 47 familiak jaso zituztela eta horietatik 9 ziren etorkinak.

### **Biztanleria zahartzen ari dela ere esaten da. Adin nagusikoentzako zerbitzu gehiago abian jartzea eskatzen al du horrek?**

Zumaian, oro har, adin nagusiko herriarrentzako zerbitzu osatua daukagu: Teleasistentzia, Etxez-Etxeko Laguntza, Apartamentu Balioanizdunak, Eguneko Zentroa (astelehenetik igandera), Bi Egoitza, Beheko Plaza Elkartea, Nagusilan Elkartea... Adin nagusiko askok, gainera, mendekotasunen bat izaten dute eta horretarako ere prestazioak baditugu. Nahiz eta bailara osorako zerbitzua

ematen duten, adin nagusikoen harrerarako bi egoitza ditugu herrian, San Juan egoitza eta Otezuri gerontologikoa. Bi erakundeekin gaude gu harremanetan, zerbitzu hauek jasotzeko guk eskaintzen dugu informazioa eta eskari guztiak guk jaso eta tramitatzen ditugu.

### **Aurrera begira eta talde berria finkatuta duzuela, zein izango dira gizarte zerbitzuen erronka nagusiak?**

Lehenengo eta behin, sendotu egin nahi dugu jendearenganako arreta zerbitzua. Behar duten denbora eskaini nahi zaie, eta behar duten jarraipena eman kasuei. Tramitazioaz gain, herri-tarrak artatu eta dedikazioa eskaini nahi zaie, arreta per-tsonalizatua eskaini eta harremanetan oinarritutako gizarte lana eginez. Horrekin batera, herrian gure arloari lotuta dauden premi nagusiak jasotzeko azterketa bat egitea da gure asmoa. Horren baitan, erantzun gabe dauden beharrak identifikatu eta horien araberako zerbitzu berriak bultzatzea izango da gure erronka.

Informatzea izango litzateke hurrengo urratsa. Gaur egun ditugun programa eta prestazioen berri ematea nahi dugu. Eta nola ez ikuspegi prebentiboa eta komunitarioa landu nahi dugu beste zerbitzu eta eragileekin bat eginda. Ildo beretik, barne protokoloak zehaztu eta herriko beste gizarte eragileekin bat eginda, bakoitzaren zereginak zerrendatu nahi ditugu. Gertatzen diren emakumeen zein adin txikikoen aurkako indarkeria kasuei erantzuteko, adibidez, koordinazioa eta lan dinamikak badaude, baina horiek sendotu eta formalizatzea beharrezkoa izango da.

**e**l Ayuntamiento ha reforzado los Servicios Sociales ampliando el personal del departamento. Tal y como ha señalado el alcalde y el presidente de la comisión Iñaki Agirrezabalaga, "nada más llegar al gobierno nos percatamos de que había ciertas carencias en el sector de servicios sociales. Por ello, emprendimos la

labor de acrecentar los recursos y empezamos la contratación de personal en 2008". En adelante, dos nuevas asistentes sociales y una auxiliar administrativa reforzarán la labor del actual equipo de trabajo.

La asistente social y también encargada del departamento Pili Alberdi ha explicado que uno de

los retos del nuevo equipo será adecuarse a las nuevas necesidades que se generan debido a los cambios que se han dado en la sociedad. Del mismo modo, ha asegurado que la atención hacia los ciudadanos mejorará. Quieren ofrecer "el tiempo que necesita" a cada persona y pretenden dar "el seguimiento que requiere" a cada caso.

# Zumaia Uemako kide



**Z**umaia herri euskalduna da, Urola Kostaldea eskualdea bera bezalaxe. Euskaraz badakitenak eta nahiko ondo ulertzen dutenak kontuan hartuta, esan dezakegu bost lagunetik lau euskal hiztunak direla Zumaian. Azkeneko urteetan normalizazio planak abian jarri dira, erabilera planak zehaztu dira, eta euskarak herrian nahiko egoera ona bizi duela esan daiteke. Badaude, baina, hobetu beharreko arloak eta bide horretan, Zumaia-ko Udalak Udalerri Euskaldunen Mankomunitatean (UEMA) sartzeko erabakia hartu berri du.

Nerea Epelde (talde mistoa) Euskarako zinegotziaren arabera, “UEMAk berebiziko garrantzia du euskara teknikaririk ez duten herrientzako, baina Zumaia-arentzat ere aberasgarria izango da. Bere moduko herri euskaldunetako esperientziak jaso eta haiekin batera urrats sendoak emateko bidea hartzen lagunduko digu”. Horrez gain, Mankomunitateari beste hainbat balore ere ikusten dizkio zinegotziak: “Euskal Herri osoa hartzen du kontuan erakunde honek, nazio mailako ikuspegia du”.

Ekainaren 25eko ohiko plenoan onartu ziren udalbatzarrean UEMAko estatutuak eta ordutik hona, hainbat zehaztapen egiten aritu dira Udaleko zein UEMAko teknikariak. Ezker Batua-Berdeak/Aralar koalizioak egindako eskaria izan da Zumaia UEMA-n sartzea eta behin udalbatzarrean proposamena onartuta, 2009ko aurrekontuetan 15.000 euroko partida sortua dute horretarako. Uztailaren 29ko ezohiko plenoan, berriz, Udalaren izenean UEMAko ordezkariak

Zumaia-ko lau udal taldetako bana izatea onartu zuten.

## 60 Udalen arteko elkarlana

1991. urtean sortu zen UEMA eta, egun, 60 Udalek osatzen dute. Mankomunitate horretako kide diren Udalek, udalerri euskaldunaren izaerarekin koherenteagoa izan eta horrekin, herriko bizitzaren arlo guztietan euskaldunak erosoago eta gusturago senti daitezen lan egiteko konpromisoa dute.

Udalerri guztiek bat eginda, euskara nagusi izango den lurruna osatzea da indarrak batze honen xedea. Izan ere, Soziolinguista askoren arabera, behar-beharrezkoa da hizkuntza batek iraungo badu, hizkuntza hori nagusi izango den lurruna osatu eta hori modu berezi batean zaintzea.

“Zumaia-ko orain arte euskara alorrean lan egin du, baina UEMA-n sartzeko beste udalerriekin harremanetan jartzeko suposatuko du. Horrela, udalerrien artean, esperientzia onak trukatzeko ahalbidetuko da”.

## Taldeekin harremanak

UEMAren asmoa herriko euskalgintzarekin elkarlanean jardutea da eta Zumaia-ko Udalak ere harreman horiek sendotzeko asmoa berretsi du. Euskaraz zinegotziak azaldu duenez, “herriko eragileekin harremanak sendotu nahi ditugu, eta ahal den tokietan, foroak

sortu, herria euskaldun(ago)tzeko prozesuan aurrera nola egin eztabaidatu, hausnartu eta erabakitzeko”.

Aurrerantzean, UEMAren zerbitzu tekniko eta Zumaia-ko euskara zerbitzua elkarlanean arituko dira euskararentzat eraginkorrenak diren urratsak emateko asmoz.

**S**e puede decir que el municipio de Zumaia es euskaldun. Teniendo en cuenta los que saben hablar euskera o lo entienden bastante bien, cuatro de cada cinco zumaiarras son vascoparlantes. En los últimos años se han tomado diversas medidas para promover la normalización del euskera, pero en el camino todavía quedan pasos por avanzar. En ese sentido, el Ayuntamiento ha tomado la decisión de formar parte de la Mancomunidad de Municipios Euskaldunes UEMA, propuesta realizada por EB-Aralar.

La Mancomunidad fue creada en el año 1991 y actualmente está formada por 60 municipios de toda Euskal Herria. Para la concejala de Euskera Nerea Epelde, la experiencia será “muy enriquecedora” para Zumaia, y es que “UEMA nos valdrá para compartir experiencias de otras localidades y junto a ellos dar pasos firmes hacia la normalización de nuestro idioma”.

# Bizikleta berriak Mugin



**b**adira lau hilabete Zumaia-ko Udalak Mugi bizikletak maileguan hartzeko zerbitzua abian jarri zuela. Orduetik hona, 400 pertsona inguru harpidetu eta 2.000 zerbitzutik gora eskaini dira. Izan duen harrera ikusita, zerbitzua hobetu eta indartzen jarraitu nahi du orain Udalak.

Lehenengo urratsa maileguaren iraupe-na luzatzea izan da. Abuztuan bertan eskaini zen zerbitzua ordu betean erabili beharrean, bi ordura luzatzeko aukera. Andoni Etxaniz Ingurumen zinegotziaren hitzetan, “ordubeteen herriko puntu batetik bestera joan zaitezkeela uste dugu, baina horretaz aparte, zenbaitek ariketa fisikoa egiteko erabiltzen dituzte bizikletak. Horregatik, zerbitzua luzatzea erabaki dugu”.

Maileguaren iraupena luzatzeaz gain, maileguan hartzeko bizikletak ordezkatu berri ditu Udalak eta denbora tarte batean probaldian izango dira. Etxe bereko bi bizikleta mota aurkituko dituzte erabiltzaileek probaldiak irauten duen bitartean. Gero egokiena aukeratuko da. “Hasieran ekarri genituen bizikletak zerbitzu honetarako egokienak ez zirela ikusi genuen”, dio Asier Manuel ingurumen teknikariak: “lehenengo bizikletaren koadroa kalitate onekoa zen arren, gainontzeko elementuak ez ziren kalitate hoberenekoak”. Hala, BH markako bi bizikleta aurkituko dituzte herritarrek mailegu guneetan eta gero, egokiena aukeratuko da.

Baina horiek ez dira izango hartuko diren neurri bakarrak. Izan ere, Udalak aztertzen ari da herrian mailegu gune

gehiago jartzea. “Inbertsio esanguratsua eta sakon aztertu beharrekoa” izango da herrian mailegu gune eta bizikleta gehiago jartzea. Hala ere, zerbitzua induteguneetara, hondartza inguruetara, eta interes orokorreko beste hainbat gunetara hedatzea ari da aztertzen Udalak. Hala ere, eta Udaletik inbertsioak egiteko momenturik egokiena ez dela aitortu arren, herritarrei zerbitzu hobea eskaini eta autoak ordezkatzeko politikak indartzen jarraituko dutela gaineratu du Ingurumen zinegotziak: “Mugi zerbitzuak herrian ohitura berriak sortzen lagunduko du eta horrek herria gero eta atseginoago izateko bidean aurrera egiten lagunduko digu”.

## Herritarren iritzia jasotzeko inkesta

Aldaketa horiek herritarrengan duten inpresioa jakin, eta oro har zumaiarrek zerbitzuaz duten iritzia jaso asmoz inkesta ari da egiten Udalak zumaia.net bere webgunean. Bizikleta berrien gaineko iritzia, mailegu guneen egokitasuna, edota hartu beharreko neurrien inguruan duzun iritzia emateko balioko du inkestak.

## Nola egin Mugi zerbitzuko erabiltzaile:

Zerbitzuaren webgunearen bidez: [www.biziprest.com/mugi](http://www.biziprest.com/mugi)

Informazio telefono zenbaki honen bidez: 900840345.

Zumaia-ko Turismo eta Informazio Bulegoan.

## Erabiltzaileak ordaindu beharrekoa:

Zumaian erroldatuta bazaude:

- 18 urtetik gorakoentzako 10 euro / urteko zerbitzua.
- 14-17 urte bitartekoentzako 5 euro.
- Langabe eta jubilatuentzako doan.

Noizbehinkako erabilera: 21 erabilera-tako txartela 5 euro edo 90 erabilera-takoa 10 euro.

## Mugi zerbitzuari buruz duzun iritzia emateko:

Sartu [zumaia.net](http://zumaia.net) web orrian eta eskunean dagoen inkesta atala klikatu. Bi minutu ere ez dituzu beharko galdera guztiei erantzuteko.

**e**l Ayuntamiento sigue reforzando el servicio de alquiler de bicicletas Mugi. Ahora ha sido mediante la instalación de nuevas bicicletas que sustituirán a las anteriores, que no han resultado ser de tan buena calidad como se esperaba. Así, el usuario encontrará dos modelos diferentes de bicicletas que estarán en periodo de prueba para luego elegir la más apropiada.

Con el objetivo de recoger las impresiones de los ciudadanos sobre este servicio, el Ayuntamiento está realizando una encuesta en su página web [zumaia.net](http://zumaia.net).

## Basadin jolastoki berria



Lehengo parkea.

**b**asadi auzoan haurrentzako jolastoki berria egokituko du Udalak. Anbulatorio inguruko hiritartze lanekin batera prestatuko da gatzetxoentzako eremu berria eta 440 metro karratuko azalera izango du, gutxi gorabehera. Lehengo jolastokiaren eremua handitu egingo da eta alboko belargunea aprobetxatuko da horretarako.

Dagoeneko jolastokiaren lanak esleitzeko prozedura abian du Udalak eta 69.400 eurokoa izango da gehienezko lizitazioa, BEZa barne.

Kontratazioko oinarrien arabera, ekipamendu berriak estimulu hezigarriak eskaini beharko ditu, eta jarduera fisikoa, aisia, irudimena eta gaitasun motorrak sustatuko ditu. Horrez gain, balioetsi egingo da proposamenetan elementu bereziak sartzea, ahalmen urriko hau-

rek jolasetan parte hartzeko aukera izan dezaten.

### Lehenkoa berrerabili egingo da

Orain dagoen jolastokia ez da zaborretara botako, ordea. Gorde egingo da eta behar dituen mantentze lanak egiten ari dira, beste eremu batean aprobetxatzeko.

**e**l Ayuntamiento dispondrá un nuevo parque infantil en el barrio Basadi. El nuevo espacio será acondicionado junto con los trabajos de reurbanización del ambulatorio y la superficie total de la parcela será de 440 m<sup>2</sup>. El antiguo parque se reutilizará en otra zona.

## Alondegia eraberritzeko lanak hasi dira



**a**londegia eraberritzeko lanak hasita daude irailetik. Exekuzio honen helburuak Alondegi zaharra eraberritu eta Kultur Etxea eta udal liburutegia bertan kokatzea izango dira. 2,2 milioi euroko aurrekontua du proiektuak eta lanak hamabi hilabetean bukatzea aurreikusten da.

Udal liburutegiaz gain, Udaleko Kultura Saileko bulegoak, erakusketa gela bat eta ikasteko areto zabal bat izango ditu eraikin berriak. Horren haritik, eta proiektu-

tuaren obra zuzendaritzak exekuzioa sakon aztertu ondoren, zenbait hobekuntza izango dira birgaitze lanetan. Izan ere, erakinen solairu guztietan dauden pilareak kendu ahal izateko bidea aurkitu da. Horrek, solairu guztietan, azalera osoaren erabilgarritasuna bermatuko du eta aurrerapauso garrantzitsua izango da beheko solairuan egokituko den erakusketa gelarentzako ere.

Hasierako proiektuan aurreikusita zegoen bildegia egitea ezinbestekoa ez dela ondorioztatu da, eta horrek ere, erakusketa aretoaren bolumena eta erabilgarritasuna hobetzen lagunduko dute.

### Egokitzapenak inguruetan

Lanek irauten duten bitartean, zenbait aldaketa zango dira eraikinaren inguruko pasabideetan. Hala, Erribera kalearen zati bat itxi egingo dute oinezko zein ibilgailuentzako, Pulpo elkartearen egoitzaraino hain zuzen. Ildo beretik,

itxita egongo dira Mari kaletik Erribera kalera jaisteko eskailerak ere.

Aldaketek sortu ditzaketen eragozpenen berri eman edo argibide gehiago jaso nahi dituenak udaletxeko ateak irekita izango dituela gogoratu du Udalak.

**e**l Ayuntamiento ya ha iniciado los trabajos de rehabilitación de la antigua Alhóndiga de Zumaia. El proyecto tiene un presupuesto de 2,2 millones de euros y se prevé que las obras terminen en 12 meses.

Después de estudiar a fondo el proyecto, se han conseguido considerables mejoras. Entre ellas destaca la eliminación de todos los pilares del antiguo edificio. Con esta mejora, se podrá utilizar el 100% de la superficie.



**d**os años después, mediada la legislatura, ¡por fin!, parece que han comenzado las obras de rehabilitación de la Alhóndiga. No cabe duda de que se trata de un edificio emblemático y que forma parte del perfil urbanístico de Zumaia, además su situación es inmejorable. En 2007 ya aprobamos las partidas de dinero necesarias para acometer las obras, que vendrán a superar, seguramente, los tres millones de euros (500.000.000 ptas). Una GRAN cantidad de dinero, más ahora si cabe, a las puertas de un 2010 que verá agravarse la crisis en las cuentas municipales, igual que en los bolsillos de todos los zumaiarras. Por eso, cuando en los últimos Plenos el PNV ha votado a favor de la adjudicación de las obras, hemos querido dejar claro dos cosas; la primera, que nos alegramos de que comiencen. Ya era hora, no es fácil entender la velocidad ultralenta del gobierno ANV-EA (por supuesto, dirán que ha sido culpa del PNV, como siempre). La segunda, que puestos a gastar tantísimo dinero sería bueno pararse a pensar si es socialmente rentable reproducir los mismos servicios culturales que ya tenemos, como parece ser la intención del gobierno municipal, o si no sería mejor intentar abrir el abanico de servicios socio-culturales de Zumaia, como era nuestra intención cuando aprobamos el proyecto. De una u otra manera, no nos olvidamos de que la obra servirá para mejorar el acceso desde Erribera a Mari Kalea, uno de los “efectos colaterales” que pretendíamos.

*El frontón. El gobierno ANV-EA se ha pasado dos años largos mirando, como hacen los búhos, que se fijan, pero no aportan. Mientras, el promotor construía las casas: las de VPO que ellos (EA-ANV) sortearon, satisfechos, y las libres, que éste ha vendido. Ahora las casas están construidas, pero no hay rastro del frontón, que debería estar avanzadísimo. Durante este tiempo el PNV ha avisado en Plenos y comisiones de lo que iba a pasar... y ha pasado. Por supuesto, dirán también que la culpa es del... (fácil, ¿qué no?).*



**j**oa zaigu uda, oporraldia, baina oraindik ere ondo gogoan dauzkagu **gertatutakoak**: preso politikoen argazkien jazarpena, ekitaldien eta manifestazioen debekua hainbat herritan, presoekiko eta iheslariekiko elkartasunaren kriminalizazioa, Remi Ayestararen heriotza Villabonan, Jon Anzaren desagertzea, kartzetako egoera larria are gehiago okertzea, zumaia-rrak Madrilera joanaraztea deklaratzera... Estatuak eta bere laguntzaileek ukatu egiten dute gatazkaren izaera eta konponbide politikoa eta errepresioaren bidea hartuta dabilta aspaldian; egoera gogorra da, bai, eta larritasun horrek are ageriagoan uzten du **Euskal Herriak aldaketa behar du**ela: egungo ukazio-egoera gaintu eta proiektu politiko guztiak posible egingo dituen **eszenatoki demokratikora iritsi nahi eta behar** dugu.

Uda alde batera utzi eta kurtso politikoa hastera goaz, eta Euskal Herria mailan dauzkagun erronkez gain, ez dauzkagu nolanhiko erronkak Zumaian bertan. Bigarren urtea bete dugu Udal Gobernuan, eta **gauzak aldatzen ari gara**, pixkanaka: Zumaiako Udalaren ahalmena handitu egin dugu, indartsuagoa egin dugu zumaiarrei zerbitzu hobea emateko; herritarrek parte hartzeko bideak handitzen eta zabaltzen ari gara; informazioan eta gestioan gardentasuna eta irekitasuna handiagoak dira... Proiektu zehatzei helduta, arloz arlo hainbat egitasmo dauzkagu abian: hor dago **Alondegia** eraberritzea, etorkizuneko kultur etxea izango dena; **frontoiaren** gaia bideratzeko pausoak eman berri dira; **Zumaia Lantzenen** gestio eredu aldatu dugu eta Udalaren esku geratu da; **Udaleri Euskaldunen Mankomunitatean** sartzeko lehen urratsak eginak ditu Udalak; **Kirol Patronatua** gorpuzten ari da... Horietako batzuk epe motzean eta segituan gauzatuko ditugu, beste batzuk epe ertainean eta beste batzuk mamitu arte iragango dira urte batzuk. **Poliki baina sendo, bagoaz aurrera.**

Aurten ere, iaz bezala, **udal-aurrekontuak herritarrekin landu** nahi ditugu, elkarlanean, eta laster jarriko da abian horretarako prozesua. Krisiak ere eragin nabarmena izan du Udalaren finantziazioan, batez ere diru-sarreretan, baina ahal den neurrian ahaleginduko gara herritarren iritzia eta nahiak jasotzen eta etorkizunean betetzen. Horregatik, dei egiten diegu zumaiar guztiei prozesu horretan ere parte har dezaten.



**Z**umaiaiko frontoia noiz?. Así se pueden ver engalanados algunos balcones de nuestro pueblo.

*Pues bien, según el convenio urbanístico firmado en su día entre el gobierno del PNV y un constructor, el frontón debería de estar finalizado a los seis meses desde el otorgamiento de la licencia de primera ocupación de las viviendas de Ardantzabide. A la vez, el constructor debía de presentar un aval por la cuantía del coste del frontón. Sin embargo y debido a la crisis económica que padecemos, se nos comunicó por parte del constructor la imposibilidad de poner el aval, aunque si la voluntad de construir el frontón.*

*Ante todo esto, ¿al Ayuntamiento qué vías de solución se le plantean? Fundamentalmente dos: 1) Sustituir el convenio original por otro, en el que se le de solución a la problemática del aval, poniendo plazos de ejecución del frontón, otras garantías adicionales, etc (solución en la que este gobierno ha estado trabajando durante meses) y 2) Obtención de una parcela de suelo para viviendas, equivalente al valor del frontón, para así poner a la venta ante otros compradores.*

*Nosotros hacemos las siguientes consideraciones: 1) El objetivo de este convenio era y debe de ser la construcción del frontón 2) En ese sentido y teniendo en cuenta cual es la problemática del sector de la construcción, hay que tratar de negociar con el constructor actual, propietario mayoritario del ámbito un nuevo convenio, ya que a efectos prácticos solo de ésta manera se puede construir lo antes posible el frontón, aún a riesgo de no sustituir al 100% la garantía del aval. 3) La solución de la parcela nos retrasaría mucho en el tiempo la ejecución del frontón ya que consideramos, que a día de hoy pocos constructores entrarían a comprar ese suelo, aunque así tuviéramos resuelto la sustitución del aval por otra garantía jurídica.*

*Por último, señalar que toda esta problemática deriva de un convenio antiguo, y que a la vista está, no era bueno. Hay que tener por tanto, mucha "vergüenza torera" para que nos acusen de incapacidad, aquellos que precisamente firmaron un convenio tan malo y por el cual hoy día nos encontramos en esta situación.*



**U**daletxeetako egoera ekonomikoa oso txarra da, jasaten ari garen krisi ekonomikoak arazo larriak sortzen ari baita instituzio guztietan. Eb-Aralarretik udaletxeentzat diru laguntzak eskatzen dizkiegu bai Foru Aldundiari eta bai Eusko Jaurlaritzari herritarrek zerbitzu hobek izan ditzaten.

Zumaiaiko EB-Aralarretik gure babesa eskaini nahi diogu udal gobernuari frontoia eraikitzeko hitzarmena eta honek sortu duen egoera zailaren kudeaketan. Zentzuz izan diren hitzarmena ez betetzearen arrazoiak berau sinatu zutenak argitu beharko dituzte. Azken urteetako hirigintza kudeaketaren ondorioak orain jasaten ari gara eta frontoia da honen adibide garbia.

Bestalde, igogailuak eraikitzeko desjabetzeak baimentzen dituen edo etxeen baxuak etxebizitza bihurtu ahal izateko ordenantzak, atzerapen justifikatu ezinak jasaten ari dira. Espero eta desio dugu hurrengo hilabeteetan ordenantza hauek plenora eraman ahal izatea pentsatzen baitugu herritar asko dagoela hauen zain.

*La situación financiera de los ayuntamientos es desastrosa, la crisis del sistema económico está generando problemas en todas las instituciones. Desde EB-Aralar pedimos una inyección económica por parte de la Diputación Foral y del Gobierno Vasco para que los ayuntamientos –también el de Zumaia- puedan ofrecer mejores servicios y más cercanos.*

*Desde el grupo municipal de EB-Aralar queremos mostrar nuestro apoyo al Gobierno municipal en su gestión ante la difícil situación que se está dando con el frontón y el convenio urbanístico que lo sustenta. La razón por la que no se ha podido llevar el convenio adelante la tendrán que explicar los responsables políticos municipales que firmaron. La gestión urbanística de la última década, ha dejado consecuencia años más tarde y la situación del frontón es un buen ejemplo de ello.*

*Lamentamos, que en este periodo de tiempo algunas ordenanzas como la que permite la expropiación para la construcción de ascensores o la de conversión de bajos en viviendas lleven un retraso no justificable. Esperamos y deseamos que en los próximos meses podamos llevar al pleno estas ordenanzas. Son muchos los y las ciudadanas, que necesitan de la ampliación de estas ordenanzas para realizar mejoras de accesibilidad en sus domicilios.*



**E**n el Pleno del día 29/07/09 entre otros puntos se trató a través de una moción del Grupo Mixto, el tratamiento de los residuos urbanos de Zumaia. La moción fue rechazada por 8 votos en contra, 3 a favor y una abstención, lo de menos es el resultado de la votación lo que de verdad importa es saber que postura toma la comisión de gobierno sobre el tema. Para aclararnos estamos dentro del Consorcio de Residuos, a través de la Mancomunidad Urola Costa de la que también forman parte Zarautz, Aia, Guetaria y Orio, esto conlleva unas obligaciones a cambio del servicio que realiza la mancomunidad a los ayuntamientos, recogida de residuos y su traslado y tratamiento en vertedero entre otros, duplicar este servicio por parte del Ayuntamiento de Zumaia, supone duplicar GASTOS, así como disponer o pagar por utilizar plantas de tratamiento y vertedero, porque habría que salirse de la Mancomunidad y Consorcio, o de lo contrario estaríamos pagando por el mismo servicio dos veces las preguntas son por lo tanto: 1ª ¿nos mantenemos en la comunidad?, 2ª ¿queremos plantas de tratamiento y vertedero en Zumaia?, 3ª ¿Cuál sería el coste de estas infraestructuras para los vecinos?.

En cuanto al proyecto de la Alondiga comenzará su ejecución en septiembre, ¡menos mal!, aunque todavía esperamos que nos aclare la Comisión de Gobierno que va a pasar con el aparcamiento de la Plaza Gurrutxaga, ascensor y pasarela y accesibilidad a San José. Si no se hace el aparcamiento ¿Cómo van a acceder los vehículos de las nuevas viviendas de Odieta, una vez urbanizada la plaza?, o vamos a dejar la plaza sin urbanizar 2 años más, y que utilidad va a tener Torre Berri, ya veremos.

Por fin se celebró la reunión pendiente desde marzo sobre el nuevo frontón el día 3 de septiembre, 2 años para que en esa reunión se pusiera encima de la mesa una parcela la nº 7 de Ardantzabide, como garante de la ejecución del mismo, pero como responsable de su ejecución el ayuntamiento. Damos por bueno el acuerdo, si con ello se consigue que como en la anterior revista tengamos nuevo frontón para 2012 o 2013.

La nueva escuela de Oikia esperamos que sea una realidad lo antes posible, por nuestra parte sabemos que el Gobierno Vasco estaba y está interesado por este proyecto, por lo que obteniendo por parte del ayuntamiento la parcela para su construcción el proyecto se pondrá en marcha.

## Irailaren 10eko ezohiko plenoa

### Ondorengo puntuak eztabaidatu eta bozkatu ziren:

**1-** Alondegia udal-liburutegi bezala egokitze lanen kontratua behinbetikoz onartu zen aho batez (EAJ-PNV 4, Talde Mistoak 3, EA 2 eta EB-Aralar 2).

**2-** Aho batez onartu zen kreditu aldaketaren onarpena ere (EAJ-PNV 4, Talde Mistoak 3, EA 2 eta EB-Aralar 2).

## Uztailaren 29ko ezohiko plenoa

### Ondorengo puntuak eztabaidatu eta bozkatu ziren:

**1-** Ogasuna: 2008ko kontu orokorra onartu zen aldeko hamar botorekin (EAJ, Talde Mistoak, EA eta EB-Aralar) eta bi abstentziorekin (PSE-EE).

**2-** Aho batez onartu zen Maria Isabel Aizpurua bake epaile izendatzeko proposamena.

**3-** Hirigintza: Aho batez balioztatu zuten 466/2008 zenbakia duen alkatetzeta dekretua, eta Alondegia udal-liburutegi bezala

egokitze lanen kontratua behin-behineko izaera onartu zen.

**4-** Pertsonala: Aho batez onartu zen 2009ko lanpostuen zerrendaren aldaketa.

**5-** Euskara: Aho batez izendatu ziren Udalaren izenean Uemako (Udalerrri Euskaldunen Mankomunitatea) ordezkariak.

### 6- Mozioak:

**6.1-** Onartu egin zen Talde Mistoak aurkeztutako Euskal Preso Politikoen mozioa aldeko zazpi botorekin (Talde Mistoak, EA, EB-Aralar) eta kontrako hiru boto jaso ziren (PNV). PSE-EEko zinegotziek ez zuten bozketa honetan parte hartu.

**6.2-** Onartu egin zen EAJren udal taldeak Talde Mistoaren mozioari aurkeztutako mozio alternatiboa. Zazpi boto alde jaso zituen (EAJ, EA, EB-Aralar) eta hiru kontra (Talde Mistoak).

**6.3-** Talde Mistoak Zumaiaiko udalerrian sortutako hondakinak ez erretzeko aurkeztutako mozioak hiru boto alde jaso zituen, bost kontra eta lau abstenitu egin ziren.

# agenda urria octubre / azaroa noviembre



## Erakusketak:

Urriaren 17ra bitartean: OLARRO EGUNA 2008 – Argazki Rallyko sariak

Urriak 19-31: +TUren eskutik, 'Emakume eta Gizon Homosexualak historian zehar'

## Deialdiak:

- Urriaren 9tik 12ra, Eusebio Gurrutxaga plazan, Elikagai eta Artisautza Azoka. *Feria de alimentos y artesanía en la plaza Eusebio Gurrutxaga.*
- Urriaren 16an 18:00etan, Hitzaldia eta atek irekita Eguneko Zentroan. *Charla informativa y puertas abiertas en el Centro de Día de Zumaia.*
- Urriak 26- 29: 21:30ean, Aita Mari zinean, Zinema Sozialeko Zikloa. *Ciclo de cine social.*
- Urriaren 23tik 25era: ASTEBURU MIKOLOGIKOA. *Feria micológica.*
- Azaroaren 17tik 22ra: Xixili Egunaren aitzakian, MUSIKA ASTEA. *SEMANA DE LA MÚSICA.*

## Bisita gidatuak:

### Urriak 3

Irteera geologikoa eta txalupa. *Salida geológica y paseo en barco.*

### Urriak 4

Ibilaldia txalupaz. *Paseo en barco.*

Flysch-aren trekking-a: Deba-Zumaia. *Trekking del Flysch: Zumaia-Deba*

### Urriak 18

Ibilaldia txalupaz. *Paseo en barco.*

### Urriak 24

Flyscharen ibilbidea, ibilbide osoa. *Ruta del Flysch, ruta completa.*

Irteera geologikoa eta txalupa. *Salida geológica y paseo en barco.*

### Urriak 25

Flysch-aren trekking-a: Zumaia-Deba. *Trekking del Flysch: Zumaia-Deba*

### Urriak 31

Irteera geologikoa eta txalupa. *Salida geológica y paseo en barco.*

### Azaroak 1

Ibilaldia txalupaz. *Paseo en barco.*

### Azaroak 7

Irteera geologikoa eta txalupa. *Salida geológica y paseo en barco.*

### Azaroak 8

Flysch-aren trekking-a: Zumaia-Deba. *Trekking del Flysch: Zumaia-Deba.*

## Urria / Octubre

### Ostirala, 2 Viernes

19:00etan Forondan: Olarro Eguna 2009.eko argazki rallyko sari banaketa eta proiektzioa. *Entrega de premios del rally fotográfico del Olarro Eguna 2009.*

22:00etan Aita Mari aretoan MASKARADA: 'Ohean' antzezlan. *Teatro en Aita Mari: 'Ohean'.*

### Larunbata, 3 Sábado

17:00etan XIII. Zakila Bira lasterketa. *XIII. Edición de la carrera popular Zakila Bira.*

20:00etan Udal Musika Bandaren udazkeneko kontzertua, Ondartxo plazan. *Concierto Otoñal de la Banda de Música.*

### Osteguna, 8 Jueves

22:15ean Aita Marin, zine foruma: 'La caja de Pandora' *Cine forum en Aita Mari: 'La caja de Pandora'.*  
9tik 12ra: plazan, Elikagai eta Artisautza Azoka. *Del 9 al 12, Feria de alimentos y artesanía en la plaza Eusebio Gurrutxaga.*

### Igandea, 18 Domingo

12:00etan Aita Mari aretoan, Deabru beltzak – 'nora zoaz txano gorritxu'. *Teatro en Aita Mari: 'Nora zoaz txano gorritxu'.*

### Osteguna, 22 Jueves

22:15ean zine foruma: 'Génova'. *Cine foruma: 'Génova'.*

### Ostirala, 23 Viernes

22:00etan Komentuan, Baleikek antolatuta ZURA taldearen kontzertua. *Concierto del grupo ZURA en el convento.*

### Ostirala, 30 Viernes

20:00etan eta 22:00etan 'Club de los caballeros' antzezlan. *Teatro en Aita Mari: 'Club de los caballeros'.*

## Azaroa / Noviembre

### Igandea, 18 Domingo

19:00etan Parrokian Tolosako Abesbatza topaketen barne kontzertua: SWEDBANK CHAMBER CHOIR, Letonia *Concierto del Coro de Tolosa en la Parroquia.*

### Osteguna, 5 Jueves

22:15ean zine foruma: 'Cerezos en flor'. *Cine foruma: 'Cerezos en flor'.*

### Ostirala, 13 Viernes

22:00etan Aita Marin, antzerkia, 'Hector'. *Teatro en Aita Mari: 'Hector'.*

### Asteartea, 17 Martes

18:00etan Musika Eskolan, XIXILI EGUNAREN AITZAKIAN Entzunaldiak. *Actuaciones del Día de Santa Cecilia, en la escuela de música.*

### Osteguna, 19 Jueves

18:30ean Maria eta Josen, Musika Eskolaren Xixili eguneko Jaialdia. *Festival del Día de Santa Cecilia en la escuela Maria eta Jose.*

22:15ean zine foruma: 'Still walking'. *Cine forum: 'Still walking'.*

### Larunbata, 21 Sábado

18:30etan San Pedro abesbatzaren Xixili eguneko Kalejira. *Pasacalle del coro San Pedro.*

19:00etan Zumaiaiko Musika Bandaren Xixili eguneko kontzertua. *Concierto de la Banda de Música de Zumaia.*

### Igandea, 22 Domingo

12:00etan Aita Marin LURBIRA OPERAREKIN 'Euskal Ipuin bat'. *Obra 'Euskal ipuin bat' de la mano de Lurbira Opera en Aita Mari.*

### Ostirala, 13 Viernes

22:00etan Aita Marin, antzerkia, 'Hector'. *Teatro en Aita Mari: 'Hector'.*

### Larunbata, 28 Sábado

19:30ean Forondan, Baleike Kultur Elkarteak antolatuta literatura emanaldia. *Recital de literatura de la mano de Baleike.*

### Igandea, 29 Domingo

12:00etan Aita Marin, MacJearas Band 'Bourbonetik Broadwayra' kontzertu didaktikoa. *Concierto didáctico de MacJearas Band.*